Kristau Komunitate osoa animatu eta gidatzen du gizarte eta karitate lanean. Boluntarioran oinarrituz, gizarte konpromisoa, parte-hartzea eta sareko lana sustatzen dira. Pertsonen laguntzen zaie beren gizarteratze-prozesuetan, itxaropena elikatuz, eta pertsona guztien eskubideak babesten dira, bizimodu duina lortzeko. Injustizia egoeren inguruan sentibilizatu eta horiek ikusarazi eta salatu egiten ditu, gizarte eraldaketarako alternatibak proposatuz.

Ikuspegia

Fedearen gizarte eta karitate dimentsioa sendotzea, komunitateen bizimoduko elementu nuklear gisa. Parte-hartze eta mobilizaziorako estrategiak aktibatzea, gizarte bidezko eta solidario baten aldeko konpromisora bideratuta. Gizarteratze-prozesuetan laguntzea, harreman komunitarioak eta partaidetzarako esparruak bultzatuz, dimentsio espiritualak garatuz eta estali gabeko beharrezan erantzunez. Bazterkeria egoerak eta giza eskubideen urraketak ikusarazi, sentibilizatu eta salatzea.

Balioak

Maitasuna, Gertutasuna, Itxaropena, Parte-hartzea, Doakotasuna, Zintzotasuna, Eraginkortasuna


**Bideo
instituzionala**





Caritas Bizkaiak tokiko kristau komunitate guztiak animatu eta babesten ditu gizarte eta karitate konpromisoa hartzera, erantzukidetasun espazioetan parte hartzera eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonen bide-laguntza ematera.

Animatzearen helburu nagusia Jesusen maitasuna bere komunitatean sustatu eta bideratzea da, gutxien daukatenen zerbitzura ahalik eta eraginkorra izan dadin.



Lurralde mailako proiektuetako arreta bikaritzen arabera

Arloak: Familia eta haurtzaro harremanak, Harrera integrala, Sustapen sozial eta pertsonala, Lankidetzeta eta Migrazioak, Edadetuak eta zahartzea.



Elizbarruti eremuko proiektuetako arreta

Arloak: Etxerik gabeko pertsonak, Enplegua eta ekonomia solidarioa, Gazteria
Zerbitzuak: Juridikoa eta Psikologikoa

LAGUNDUTAKO PERTSONAK: 4.879 - ♀ %50

Zurekin bazara



JARDUERA ARLOAK	LAGUNDUTAKO PERTSONAK	EMAKU-MEZKOEN %
HARRERA INTEGRALA	6.448	%53
ETXERIK GABEKO PERTSONAK	1.649	%17
LANERATZEA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA	2.342	%66
SUSTAPEN SOZIAL ETA PERTSONALA	1.389	%81
FAMILIA-HARREMANAK ETA HAURTZAROA	1.107	%57
GAZTERIA	147	%17
EDADETUAK ETA ZAHARTZEA	415	%79
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA MIGRAZIOAK	161	%56
ZERBITZU PSIKOLOGIKOA	179	%54
ZERBITZU JURIDIKOA	577	%52

1.922
boluntario



5.248
bazkide eta
kolaboratzaile

131
pertsonek
kontratatu

%51
♀

%76
♀





3.224 haur (%41 ♀) eta **1.432** gazte (%49 ♀). Caritas Bizkaian arreta jaso duten pertsonen %35 25 urtetik beherakoak izan dira. (%43 ♀)

3.918 pertsona bakarrik bizi dira. (%47 ♀)

%48 26 eta 50 urte bitartekoak dira. (%58 ♀)

2.699 pertsona guraso bakarreko etxeetako kideak dira. (%70 ♀)

676 urtetik gorako 676 pertsona. (%81 ♀)

6.267 pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira. (%61 ♀)

5.133 (%39) heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2020an. Erdiak emakumeak izan ziren. (%48 ♀)

%59 bertakoak eta egoera erregularrean dauden etorkinak. (%60 ♀)

13.096

%55
emakumeak

pertsonak jaso dute bide-laguntza Bizkaian, **245** proiektuetan



Elkarbizitza eta laguntzarako oinarrizko sareen gabezia ezaugarri ohikoa da Caritas Bizkaia artatzen dituen pertsonen artean, bai bakarrik bizi diren pertsonak direlako, bai guraso bakarreko familiak osatzen dituztelako.

Boluntariotza

Caritas Bizkaiaren boluntariotza:

- Gizarte bidezkoago bat lortzeko aldaketa sozialarekin **konprometitua**
- Gizarteari ekarpena egiten dion boluntariotza **aktiboa**, ez soilik egindako lanen bidez, adierazitako jarreraren bidez ere
- Nagusi den indibidualtasunaren aurrean erantzun kolektiboak emateko **antolatu eta parte hartzeko prest** dagoena
- Boluntariotza **koherentea**
- Parte-hartzearen bidez, elkartasun, doakotasun eta berdintasunaren **balioak** adierazten dituen boluntariotza
- **Prestakuntza eta ekintzarako prest** dagoen boluntariotza, borondate onaz harago, kalitatezko ekintza bat sustatuz

1.922 boluntario (%80 ♀)

156 boluntario berri. (%69 ♀)

136 pertsonak parte hartu zuten boluntario izateko prestakuntza ekintzan: "Boluntariotza Izan eta Egitea".

Boluntario izateko **42** prestakuntza-saio. 151 boluntariok parte hartzen dute. (%81 ♀)



Boluntariotza kanpaina



"Beste pertsona askorekin batera "Guztion Artean" ekimenean parte hartzen dut, zailtasunak dituzten pertsonengandik gertu egon eta laguntza emateko. Nire ustez, egoera honek planteatzen digun erronka zera da: pertsona askok bizi duten babesgabetasun egoeran ohartzea. Etxeko bakardadeak gure bihotza zabaldu eta begi eta belarriak findu ditzala, orain arte entzuten eta ikusten ez genituen horiei erreparatzeko".

(Konfinamenduaren Diaria).





EKINTZA ESANGURATSUAK

Covid-19aren erronkei erantzuntea.



Parte-hartzea: Guztion Artean (Eusko Jaurlaritza): boluntarioritza. Boluntarioekin beharrianak konektatzea.

Eusko Jaurlaritzak boluntarioritza lana aitortu du.

Lankidetzatza: Azken Sarea (Eusko Jaurlaritza)

Pobrezia egoeran dauden pertsona eta familientzako laguntzak sendotzea.

Laguntza ekonomikoak mugikor bidez ematea

Innobasque eta Euskalit erakundeen berrikuntza arloko errekonozimendua.

Etterik gabeko pertsonentzako erantzun berriak

Gaueko zentroko arreta eta jantoki zerbitzua zabaltzea (Hontza).

Tuperrak eramateko zerbitzua.

Jantokietan txanda bakoitzeko pertsona gutxiago, eta txanda gehiago.

Parte-hartzea: Lehen Urratsak (Eusko Jaurlaritza)

Begoñetxe Aterpea: Bazterkeria-arriskuan dauden gazteei arreta integrala emateko egoitza baliabidea.

Gure bide-laguntza metodologia egokitzea:

Telefono edota Whatsapp bidezko laguntza, online saioak...

- Bakarrik dauden edadetuekin
- Aholkularitza juridikoa behar duten pertsonekin
- Entzutea eta orientazioa behar duten gurasoekin
- Laguntza psikologiko eta emozionala behar duten heldu eta gazteekin
- Informazioa, orientazioa, entzutea eta aholkularitza behar duten eta pobrezia egoeran dauden pertsonekin
- Hitz egiteko, norbaitekin egoteko edota jarduerak burutzeko beharra duten etxerik gabeko pertsonekin...
- Entzutea, orientazioa eta erreferentziak behar dituzten gazteekin
- Informazioa, orientazioa eta erreferentziak behar dituzten lanik gabe dauden pertsonekin

Parte-hartzea: Aukerak Suspertzen (Eusko Jaurlaritza)

Hautzaro arloko prestakuntza prozesuetan laguntzea. Familia babesgabei eta arrakala digitala bizi duten haur eta gazteei eskola-laguntza ematea aurrez aurre, telefonoz, online...

Konfinamenduaren Diariora



Harrera integrala

POBREZIAREN KONTRAKO BORROKA

Bizimodu duina izateko gutxieneko diru-sarrerak jasotzeko eskubidea.

Harrera Integralak hasiera-hasierako kontaktua eskaintzen die Caritas Bizkaiara gerturatzan diren pertsonari. Beren bizi-egoeraren ikuspegi globala hartzen da bertan. Oinarritzko beharrezan (elikadura, arropa, etxebizitza...) erantzuteko zailtasunak dituzten familia eta pertsonekin lan egiten dugu. Izan ere, haien lehen mailako laguntza sareek porrot egin dute, eta ez daukate gizarte-babes publikorik.

Gizarte babeserako sistema sendo baten alde, gizarte indartsuagoa izateko.

6.448 pertsona artatu dira
Bizkaia osoko 79 harrera-pun. (%53 ♀)

5.937 pertsonari eman
zaie laguntza beren **oinarritzko**
beharrezanetan. (%52 ♀)

350 pertsona izan dira
supermerkatu txartelaren onuradun.
(%54 ♀)

804 pertsonak izan dituzte
KOOPERA dendetan erosteko arropa-
txartelak. (%49 ♀)

1.868 pertsonak jaso dute
etxebizitzarekin erlazioatutako
laguntza ekonomikoa. (%52 ♀)

5.300 pertsonak **elikadura eta**
biziraupenerako laguntza ekonomikoa
jaso dute. (%52 ♀)



“Caritas Bizkaian, laguntzak emateko aukera ez presentzial bat egokitu genuen, telefono mugikorren bidezkoa. Sistema horren bidez, familiei dirua bidaltzeko aukera izan dugu, haiek gero Hal Cash sareko kutxazain automatikoetan ateratzeko, bankuko transferentzia bidez. Horrela, laguntza ematen jarraitu ahal izan dugu, egungo krisiak laguntzen prestazioa oztopatu gabe”.

Telefono bidez egin ginen jendearekin harremanetan. Horrela hitz egin zigun pertsonak batek, gure deia jasotzean: “Pentsatzen nuen inor ez zela nitaz gogoratuko, eskerrik asko ni bilatzeagatik, nola nagoen eta zer behar dudan galdetzeagatik”.

EGUZKILORE FUNDAZIOA

- 115 etxebizitza
- 374 pertsona etxebizitzetan (%49 ♀)
- 184 elkarbizitza-unitate. Horietatik:
 - 77 elkarbizitza-unitate adingabeekin.
 - Horietatik 46 guraso bakarreko familiak dira: ama eta adingabeak.
- 3 tutoretzapeko etxeak y 1 Emantzipatzeko etxebizitza: 44 personas (%36 ♀)



FUNDACIÓN
EGUZKILORE





Etixerik gabeko pertsonak

Etxebizitzarako eskubidea gainerako Giza Eskubideekin erlazionatua dago, duintasun osoz bizi ahal izatea bermatzen baitu.

Etixerik gabeko pertsonen arloaren egitekoa etxerik gabeko pertsonen bizitza duintzea eta bazterkeria-errealitate horren kausetan eragitea da.

COVID19aren ondoriozko pandemiak azaleratu egin du **etxerik ez duten edota etxebizitza desegokietan, segurtasunik gabekoetan edota ez duinetan bizi diren pertsonen errealitatea.**



Etixerik gabeko **1.649** pertsonak baino gehiagok (%17 ♀) jaso dute arreta.

93 pertsonak jaso dute arreta pertsonalizatua eta integrala Giltza eta Etxepel proiektuetan. (%26 ♀)

452 pertsonak jaso dute arreta gaueko zentroan (HONTZA). (%18 ♀)

897 pertsonak jaso dute arreta Apostoliken zentroan (eguneko zentroa eta jantoki soziala). (%15 ♀)

268 pertsonak jaso dute arreta Barakaldoko jantoki sozialean. (%20 ♀)



“Gure lana berrasmatu behar izan genuen, eguneroko jatekoa bermatu ahal izateko. Jantokietako janaria taperretan ematea erabaki genuen. Gainera, entrega egiteko ordutegia zabaldu genuen, pertsonen arteko kontaktua saihesteko. Gaur egun, aurrez aurreko arreta eta taper zerbitzua uztartzen ditugu. Apostoliken zentroan dutxa eta garbitegi zerbitzuak zabaldu genituen, higiena erraztu eta bermatzeko.

Denbora guzti honetan, heltzen diren pertsonen harrera egiten eta entzuten ari gara: Beren beldurrak, kezkak, segurtasun faltak... oso zaila izaten ari da, bereziki bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat, bakarrik eta laguntzarik gabe daudelako”.

(Konfinamenduaren Diaria).

familia-harremanak eta haurtzaroa

Haurrek eskubidea dute beren garapen fisiko, mental, moral, espiritual eta sozialerako aukerak eta babesak jasotzeko, betiere, modu osasungarrian eta askatasun eta duintasunez.

Familia Harremanen Arloak bide-laguntza eskaintzen die haurrak beren kargura dituzten familia babesgabeek, gaitasun pertsonal, sozial, afektibo eta heziketa arlokoak lantzeko.



Pobrezia egoeran haztea, prestakuntza-prozesuak garatzeko zailtasunak izatea, ziurgabetasunaren ondoriozko estresa bizitzea, enplegua galtzea, familia barneko gatazka larriak, etxebizitza galtzea... horren guztiaren ondorioz, haur eta gazteek etorkizunean pobrezia, babesgabetasuna eta bazterkeria jasaten aukera asko dituzte. Pobrezia gurasoetatik seme-alabetara pasatzen da.

1.107 pertsonak jaso dute bide-laguntza. (%57 ♀)

533 haurrek jaso dute **heziketa eta gizarte arloko laguntza** (%54 ♀) eta 454 guraso eta neba-arrebak haurrei laguntzeko orientazioa.

155 gurasori eman zaie laguntza beren seme-alaben hazkuntzarako, tailerren, prestakuntzaren eta esku-hartzeen bidez. Izan ere, gizarte-babesgabetasun egoeran dauden pertsonak zailtasun bereziak dituzte egiteko horretan.



76 haurrek jaso dute arreta zaintza-zerbitzuetan (Txikilekuak), beren gurasoek jardueretan parte hartu ahal izateko.

“Caritas Bizkaiaren haurtzaro proiektuetan berehala egokitu ginen familiekin harremanetan jarraitu ahal izateko; izan ere, bagenekien krisi honek eragin handia izango zuela babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeengan. Honakoak aktibatu ziren:

- Telefono bidezko arreta, familiak nola zeuden eta zer behar zuten jakiteko.
- Haur zein helduei babes emozionala emateko gida.
- Eskolako lanetan laguntza eman eta jarraipena egitea, ordura arte ematen genuen zerbitzuarekin jarraitzeko, eta egoera zail hartan babesak eta segurtasuna emateko.”

(Konfinamenduaren Diariora).





Edadetuak eta zahartzea

Askatasuna izateko eta norbere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea

Caritaseko Edadetuen Arloak pertsona nagusien bizi-kalitatea eta baldintzak hobetzea du helburu; bereziki, babesgabeenena eta laguntza gutxien dutenena. Horretarako, beren autonomia sustatzen da eta beren betiko lekuan egon daitezen saiatzen gara.

Bakardadearen inguruan sentibilizatzen du eta edadetuen partaidetza-gaitasuna oztopatzen duten estereotipo okerrak deseraikitzeke lan egiten du.

415 pertsonak jaso dute bide-laguntza. (%79 ♀)

140 edadetuk (%86 ♀) jaso dute **bide-laguntza** beren bakardade-egoera arindu eta zaintza ematen duten familiak babesteko.

101 (%90 ♀) pertsonak parte hartu dute **Bizi-Bete** proiektuan. Horren bidez, asteroko hitzordu bat daukate, arreta pertsonalizatua jasotzen dute, eta entretenitu egiten dira.

36 edadetuk (%78 ♀) hartu dute parte **dinamizazio-jardueretan**, harreman sozialak sendotzeko.



94 (%75 ♀) pertsonak jaso dute arreta **Esku Onetan** proiektuan. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten senideek atsedena du helburu.

Barriztu proiektua: 7 etxebizitza hobetu dira, oztopo arkitektonikoak kenduz.

16 pertsonak jaso dute arreta **Uste On** proiektuan, telefono bidezko laguntza (%100 ♀)

40 pertsonak jaso dute arreta **Egunon Etxea** Eguneko zentroan. (%32 ♀)

“Edadetuei bide-laguntza emateko proiektuetan, boluntarioak edadetuekin elkartzen ziren. Metodologia hori egoera berrira moldatu behar izan zen, gure helburua mantentzen jarraitzeko: bide-laguntza eman, partekatu eta beharizanei erantzuna ematea. Boluntariook erabaki genuen, lehen egunetik, aurrera jarraitzeko formulak bilatu behar genituela. Krisi honetan hainbeste erabili dugun baliabidea hautatu genuen, telefonoa, eta martxan hasi ginen horretan. Astero-astero deitu diegu gure edadetuei, kasu batzuetan egunero ere, beharrezkoa izan bada. Eta ez dira soilik boluntarioak arduratu deiak egiteaz, edadetuak eurak ere haien artean egon dira harremanetan, edota haiek izan dira boluntarioei deitu dietenak. Horrek argi erakusten digu, egoera zailetan, gure onena ematen dugula”.

(Konfinamenduaren Diariora).

Sustapen sozial eta pertsonala

Gizarteratze eskubidea.

Sustapen sozial eta pertsonalerako arloak ikaskuntza, erlazio maila eta parte-hartze soziala, autonomia, eta aktibazio sozial eta laborala bideratzen ditu.

Inklusio soziala eta pertsonala hobetzeko helburuak ditu, taldekako proiektuen bidez: Ikastaroak, tailerrak, prestakuntza-saioak, ikaskuntza kolektiboak... horien bidez, parte-hartzaileek aurrera egiten dute beren prozesu pertsonaletan: norbere burua zaintzea, komunikazioa, harremanak, nortasuna... eta sistema sozio-komunitarioan integratzeko gaitasuna.

1.389 pertsonak jaso dute bide-laguntza. (%81 ♀)



522 pertsonak egin dituzte **hizkuntza ezagutzeko ikastaroak** (gaztelania eta euskara). (%77 ♀)

610 pertsona aritu dira **erlazio motako jardueretan**, pertsonen arteko loturak ezarri eta eguneroko bizimodurako oinarritzko trebetasunak eskuratzeko. (%85 ♀)

374 pertsona aritu dira **dinamizazio sozio-laboralean**, enplegarritasuna aktibatzeko. (%80 ♀)

“Konfinamendua pantaila eta wifiarekin bizi izan dugu. Horren bidez, gure jarduera akademiko eta laboralarekin jarraitu eta harremanak mantendu ahal izan ditugu, kasu askotan. Baina etxe guztietan ez dute aukera hori izan; askok zailtasunak izan dituzte, sarerik edota gailurik izan ez dutelako, edota horiek erabiltzen jakin ez dutelako. Horrek, babesgabetasun eta bazterkeria egoera handiagora eraman du jendea, eta zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasun handiak sortu ditu. Caritas Bizkaiak ere alfabetatze teknologikoari aurre egin behar izan dio, epe erdirako helburu moduan. Baina arrakala digitala denon erronka da. Digitalizazioa eskubide moduan planteatzen dugu, eta, hortik abiatuta, administrazio publikoek inklusio digitala garatzeko daukaten ardura”.

(Konfinamenduaren Diarioa).





Laneratzea eta ekonomia solidarioa

Bizimodu duina izateko, enplegu duina.

Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren arloak bide-laguntza eta aukera berriak eskaintzen ditu gizarteratze eta laneratze prozesuetan, bazterkeria eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonentzat.

Langabezia eta lan-prekarietatea etengabeko kontuak dira pobrezia, babesgabetasun eta gizarte-bazterkeria egoeran bizi diren pertsona eta familientzat. Arazo hau ez da berria, baina garrantzia berezia hartzen du krisi garaian.

2.342
pertsonek
jaso dute
arreta.
(%66 ♀)



264 parte-hartzaile **laneratze-ibilbideetan** (%61 ♀)

87 pertsona **enplegurako prestakuntzan**. (%85 ♀) 6 prestakuntza ekintza burutu dira.

819 pertsonak jaso dute **orientazio soziorabiala**. (%59 ♀)

125 pertsona **lan-aurreko tailerretan**. (%2 ♀)

ENPLEGUA LORTZEA

1.619 pertsonak jaso dute arreta **lan arloko bitartekaritzan**. (%75 ♀)



85 pertsonak jaso dute arreta **autoenplegu arloko proiektuetan**. (%43 ♀)

241 pertsonak lortu dute **lan-merkatuan sartzea**. (%72 ♀)

86 gaztek jaso dute **bide-laguntza gazteentzako enplegu azeleragailuan**. (%35 ♀)

109 lanpostu sozial eta laneratze arlokoak, **Ekonomia Solidarioeko ekimenei esker**.

"Ikasleek eskolak berriz jasotzen hasteko zuten interesa ikusita, urrunetik erantzuna emateko tresna bat egokitu beharra ikusi genuen, betiere, ikasleen baliabide teknologiko eta gaitasunen arabera. Izan ere, arrakala digitala desberdintasun-faktore garrantzitsu bihurtu da. Erronka handia izan da. Irakasle zein ikasleekin hitz eginda, denontzako moduko metodologia bat adostu eta apirilaren 20an eskolekin hasi ginen berriz".

(Konfinamenduaren Diariora).

Gazteria

Gazteek garapenerako baliabideak eskuratzeko eta autonomia lortzen joateko erantzukizunak hartzeko eskubidea eta beharra dute.

Gazteria arloak erantzun integrala eman nahi die bizi-egoera zailak, kalte emozionalak eta familia edota harreman gabeziak dituzten gazteei.

Arlo horren bidez gazteei helduarorako emantzipazio prozesuan laguntzen zaie, bazterkeria eta babesgabetasun egoerak aurreikusiz eta horiek prebenitzen saiatuz. Horretarako, errealitate horiek ikusarazi eta erronkei aurre egiten saiatzen gara.

147 adingabek jaso dute bide-laguntza. (%17 ♀)

40 gazte **Gandarias**

Etxean: Ostatu zerbitzu osoa, heldu izateko prozesuan zehar lagunduz. Haurtzaroan babes-sistemaren barruan egondako pertsonak izaten dira. (%25 ♀)

58 gazte **Auzobizi**

- **Begoñetxe** proiektuan. Helburua da kaletik datozen eta prestakuntza profesionala garatzeko prozesuan dauden gazteei ostatu eta bide-laguntza komunitarioa eskaintzea. (%0 ♀)

86 gaztek jaso dute bide-laguntza **enplegua lortzeko prozesuan, gazteentzako enplegu azeleragailuaren bidez.** (%35 ♀)



18 gaztek parte hartu dute **Namasté**

proiektuan. Gazteen erreferentziako taldea da, eta helduarorako bidean dauden gazteei emantzipazio-proiektu eta prozesuak partekatzen laguntzen die. (%17 ♀)

"Etxebizitza etxetat hartu dute. Horrela, eguneroko bizimoduko funtsezko jarduerak garatzeko aukera dute, besteok normal-normalizat ditugunak: Ohe batean lo egitea, egunero dutxa hartzea, arropa garbitzea, bazkaria prestatzea, mugikorra kargatzea, konektatuta egotea, telebista ikustea, otoitz egitea, 20:00etan balkoira irtetea, ohitura osasungarriak mantentzea. Esker onez bizi dute hori dena, eta badakite bizi-proiektu bat eraikitzeko aukera paregabea dela; ikasten jarraitu dezakete, enplegua lortu, gizarteratu eta autonomo izateko".

(Konfinamenduaren Diarioa).





Nazioarteko lankidetzaz eta migrazioak

Migratzeko, nazioarteko babesa jasotzeko, nortasun kulturala mantentzeko eskubidea. Aniztasuna errespetatzea.

Nazioarteko Lankidetzaz eta Migrazioen programa karitate unibertsalaren adierazpen bezala sortu zen. Herri guztietara zabalik dagoen eta justiziaren alde eta pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten egituren aldatzeko alde borrokatzen da.

Komunitatearen, eta, orokorrean, gizarte osoaren sentsibilizazioa, parte-hartzea eta mobilizazioa sustatzen dira, herrialde pobretu eta aberastuen arteko harreman bidezkoagoak bideratzeko. Caritasen senide arteko lankidetzaren esparruan, erlazioentzako beste modu bat ikusarazi eta ekintza eta proiektuak sustatzen dira.

Senide arteko lankidetzaz oinarritutako proiektuak **12**

Jatorriko herrialdeetako proiektuak

Peru-Huaraz: Gizon eta emakumeek Andeetako gazta merkatu-ratzeko gaitasunak lantzen dituzte.

Peru-Trujillo: Emakumeen defentsa, aholkularitza, genero-indarkeriaren prebentzioa.

Peru-Yurimaguas: Covid 19aren ondoriozko osasun krisirako laguntza.

Ekador-Amazonia: Napoko emakumeen ahalduntzea eta tokiko garapenerako kudeaketa.

Indonesia: Lurrikara eta tsunamien ondoriozko larrialdi egoerari erantzuna ematea. Covid 19aren ondoriozko krisiari erantzuna emateko prestakuntza-proposamena.

Ekador-Sierra: Lurralde mailako garapen prozesu iraunkorrek eta endogenoak, ekonomia feminista, sozial eta solidarioaren ikuspegitik.

Honduras: Elikadura arloko segurtasuna hobetzeko ekizpen eredu iraunkorrek ezartzea.

Haiti: Boc-Banique eta Saltadère komunitateen elikadura eskubidea.

Kongo: Putzu septiko bat eraiki eta ama gazteentzako lanbide-pretakuntza eskola egokitzea.

Etiopia: Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako eskola. Bizi-modu eta osasun arloko proiektua.

Igarotze-herrialdeetako proiektuak

Libano: Libanon dauden siriar eta irakiar errefuxiatuei babesa ematea. Adingabe eta senideentzako heziketa laguntza.

Serbia: Migratzaile eta errefuxiatuentzako laguntza.

Migratzaile eta errefuxiatuentzako bide-laguntza proiektuak garatu ditugu **3**

Harrera herrialde moduan garatutako proiektuak

154 pertsonak (%51 ♀) eskatu dute eta jaso dute nazioarteko babesa, **Gohiabe** proiektuaren baitan.

425 pertsonak (%53 ♀) jaso dute arreta **Aholku Sarean**, atzerriartasun arloko zerbitzu juridikoaren sarean. Eusko Jaur-laritzak sustatutako zerbitzua da, eta Caritas Bizkaiak parte hartu du, abokatuen elkargoekin, Biltzen eta beste sei gizarte erakunderekin batera.

Siriar familia bati bide-laguntza eman zaio Babesletza Komunitarioaren proiektuan: Errefuxiatu familia baten integrazioa babesten duen boluntario-talde baten inplikazioa.

"Osasun krisi honen ondorioz, proiektuak partekatzen ditugun komunitateekiko harremanak are gehiago estutu ditugu. Ohikoak baino posta eta Whatsapp mezu gehiago partekatu ditugu, eguneroko egoeraren berri jakin nahi izan dugulako. Beste herrialdeetan babesten ditugun proiektuetako kideak berehala jarri ziren harremanetan, kezkatuta, hemengo egoeraren inguruko albisteak entzutean. Gure kideen, senideen eta taldeen osasunaren inguruan galtzen ziguten... beren gertutasunak indarra eman zigun eta inoiz ez bezala sentitu genuen benetan familia handi bat osatzen dugula eta elkarren beharra daukagula".

(Konfinamenduaren Diarioa).

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Caritas Bizkaian herritarren kontzientzia eraldatzeko sentsibilizazio-lana egin nahi dugu, eta, hortik abiatuta, bidegabekeria eta desberdintasun egoerak apaldu eta elkartasun eta anaitasuna landu. Eraldaketa pertsonal, komunitario eta soziala da bideratu nahi duguna, hori da gure ekintzaren eta gure presentziaren oinarria. Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzek helburu komuna dute: Pertsonak, botere publikoak eta gizarte eragileak inplikatzeko, denok gizarte eredu bidezkoago batean lan egiteko.

Erdu Te invito – ‘Alkartasuna Beti Zabalik’



Erdu Te invito – ‘Bizitza Zaintzen’



Etixerik gabeko pertsonen kanpaina



‘Ez daukat covid-ik, baina...’



Gizalegezko Lanaren aldeko kanpaina



Bizkaia Isilik



Argi Ibili!



3.365 parte-hartzaile (%62 ♀) sentsibilizazio ekintzetan.

- **4** tailer
- Dibulgaziozko **103** ekintza
- Kaleko **28** ekintza
- **96** sentsibilizazio-saio
- Ikus-entzunezko **70** baliabide berri 28.400 aldiz ikusiak





Gizarte errealitatearen behatokia

Behatokiak Bizkaiko pobrezia eta bazterkeria egoeren inguruko ezagutza eta hausnarketa sortzen ditu, Caritasen egindako arretanaren informazioa aztertuz eta sistematizatuz. Ikuspegi hori osatzeko, Euskadiko pobrezia, desberdintasun eta bazterkeria egoeren adierazleak hartzen dira kontuan.

Caritas Bizkaiaren esku-hartzearen etengabeko hobekuntzan laguntzen du eta komunikazioa, sentsibilizazioa eta intzidentzia sozial eta politikoa bideratzeko balio du.

Caritas Konfederazioaren Behatokiaren Sarearekin, FOESSA Fundazioaren Ikerketa taldearekin eta euskal unibertsitateekin batera lan egiten du.

“Krisi sozialen ondorio sozio-ekonomikoen banaketa desberdintasun sozialen logikaren ikuspuntutik azaltzen da. Horregatik, ondorio horiek sakonagoak izaten dira eta luzeago irauten dute babesgabetasun eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden talde sozial eta familien artean. Une honetan bizi dugun krisia ez da salbuespena izango”.

(Konfinamenduaren Diaria).




Emakumeen bizitzak: gizarteratze-eremu berri batera heltzeko, beren bazterkeria egoera ulertzea. (DOKUMENTAZIO SOZIALA, 4. ZK.)



Datu ekonomikoak

NORA BIDERATZEN DITUGU FUNTSAK?

HARRERA INTEGRALA	3.651.108€	%25
ETXERIK GABEKO PERTSONAK	2.702.877€	%19
LANERATZEA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA	1.778.812€	%12
SUSTAPEN SOZIAL ETA PERTSONALA	534.211€	%4
FAMILIA-HARREMANAK ETA HAURTZAROA	629.527€	%4
GAZTERIA	1.082.485€	%8
EDAETUAK ETA ZAHARTZEA	789.037€	%6
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA MIGRAZIOAK	455.268€	%3
KOMUNITATE-ANIMAZIOA ETA BOLUNTARIOTZA	1.040.022€	%7
SENTSIBILIZAZIOA	385.674€	%3
BEHATOKIA	188.650€	%1
ZERBITZU NAGUSIAK	1.224.803€	%8



GUZTIRA:
14.462.474€

NONDIK DATOZ GURE DIRU-SARRERAK?

Diru-bilketak	463.469€	%3
Bazkideak eta emaileak	4.134.396€	%25
Jaraunspen eta legatuak	2.189.904€	%14
Entitate pribatuak	1.324.254€	%8
Administrazio publikoak	7.162.649€	%44
Bestelako berezko sarrerak	989.012€	%6

Elizbarrutiaren kontseiluak Covid 2021 larrialdi-fondo bat sortzea adostu du.
Zenbatekoa: **2.500.000€**



FUNDACIÓN
EGUZKILORE

HAUR ETA GAZTEEN ETXEA

1.726.609€

ETXEBIZITZA PROIEKTUA

572.225€

KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA

185.114€

TOTAL: 2.483.948€

LAGUNTZA EKONOMIKO GISA EGINDAKO INBERTSIO SOZIALA

LAGUNTZA ZUZENAK

3.225.081€

Biziraupenerako laguntza ekonomikoak, orokorrean **2.292.953€**
Supermerkatu txartelak **36.874€**
Etxebizitza lortzeko laguntzak **807.234€**
Etxean oztopo arkitektonikoak kentzeko laguntzak **58.646€**
Formakuntzarako laguntzak **29.374€**

ZEHARKAKO LAGUNTZAK

Kontrataziorako laguntzak **98.632€**

28.084 euros en vales en colaboración con la red de tiendas KOOPERA

AUREN erakunde honetatik kanpoko ikuskaritza-enpresak, **Bilboko Elizbarrutiko Caritasen 2020ko urteko kontuen** inguruko ikuskaritza-txostena eman du, eta aldeko iritzia adierazi du.





Aliantzak

Ondorengo erakundeen lankidetzak eskertzen dugu

Eskerririk asko herri hauetako Udalei, emandako laguntzagatik: Abadiño, Barakaldo, Bedia, Bilbao, Durango, Erandio, Ermua, Gernika, Getxo, Gordexola, Igorre, Leioa, Lekeitio, Mallabia, Zeanuri, Mungia, Muskiz, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapaga, Zalla

Gizarte Ekonomia Solidarioko Ekimenak

Lotutako erakundeak

Parte hartzen dugun sareak

bidean | euskararen bidean

2019 HUIDEAKETA AURRERATUA URREZKO ANITZATESPENA RECONOCIMIENTO DE ORO A LA GESTION AVANZADA

Innobasqueren Global Innovation Day 2020 errekonozimendua

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Berrikuntza arloko Euskal errekonozimendua, CEX 2021 sarirako hautagai izateko

KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA

emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzak erakundeak

entidad colaboradora para la igualdad de mujeres y hombres

Caritas Bizkaiak garapen iraunkorrerako helburuetan duen eragina

Caritas Bizkaiaren ekintzak eragina dauka Nazio Batuek markatutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzeko erronkan.

ERAGIN OSO HANDIA



ERAGIN HANDIA



TARTEKO ERAGINA

